

***Bizkaiko Abokatuen Elkargoaren Jardunaldia.
Zordun Hipotekarioak Babesteko esparruan Jarduteko Proposamenak
Bilbon, 2012ko urriaren 16an (asteartea)***

**SESTAOKO ALKATE ETA EUDELEKO ORDEZKARIAK UDALEN
ZEREGINA NABARMENDU DU, ETXETIK KALERATZEKO PROZESUAN
DAUDEN FAMILIEI BITARTEKARITZA ETA GIZARTE-LAGUNTZA
EMATEKO**

EUDELen ordezkari legez, eta bere udalerriaren esperientziatik, Sestaoko alkateak Udaletik (gainerako administrazioekin lankidetzan) eskain daitezkeen zenbait neurriren berri eman du. Hain zuzen ere, neurri horiek etxebizitza galtzeagatik gizarte-bazterketa arriskuan egon daitezkeen familiei babesa eta laguntza emateko eskain daitezke.

Urriaren 16an, asteartean, "Zordun hipotekarioak babesteko esparruan jarduteko proposamenak" izenburuko jardunaldia egin zen Bilbon, Bizkaiko Abokatuen Elkargoak (ICASV) antolatuta. Inplikaturako herri administrazioak, alderdi politikoak, kolektiboak eta agenteak bildu ziren bertan, betearazpen hipotekarioen arazoa ahalik eta ikuspegi gehienetatik jorratu ahal izateko.

12:00etan, herri administrazioen zereginari eskainitako saioa egin zen. Bertan, Sestaoko alkateak Udalean izan duen esperientzia azaldu zuen: "zoritxarrez, familiak beranduegi etortzen dira bertara, etxebizitza galtzeko zorian daudenean, eta beti nahi izaten dute alkatearekin hitz egin". Alkateak azaldu zuenez, "babesik eta duintasunik gabeko" egoera zail honetan, familiek "sentsibilitate soziala" eta "lidergoa" eskatzen diete Udalari eta alkateari.

EUDELeke ordezkariak mezu bat igorri nahi izan zuen udaletatik, familiei babesa eta elkartasuna adierazteko. Josu Bergarak azaldu zuen, pairaturako banku-zorraren konponbidea udal eskumenekoa ez den arren, badaudela udalak bere gain har ditzakeen laguntzarako eta estaldurarako formulak, etxetik kaleratzeak familia osoaren ongizatean izan ditzakeen ondorioak eta albotak arintzeko. "Betik ez da lortzen zorra barkatzeko akordiorik banku-erakundearekin, baina familiei babesa eta laguntza eskaintzeko formulak daude, eta, horregatik, Udala beti egongo da etengabeko harremanetan eurekin", adierazi zuen alkateak.

Illo horretan, gainerako instituzioekin lankidetzan landu daitezkeen zenbait proposamen zehatzen berri eman zuen alkateak. Horietako batzuk Sestaoko udalerrirako planifikatuta daude dagoeneko:

- 1) Udal protokoloak sortzea etxebizitza galdu duten familien gizarte-laguntzarako eta laguntza integralerako, familia-inguru osoa hartuko duen erantzun azkarra eskaini ahal izateko.
- 2) Hutsik dauden etxebizitzaren parkea mugiaraztea, gainerako administrazio eta banku-erakundeekin lankidetzan.
- 3) Autonomia erkidegoko gizarte-prestazioen sistema indartzea, instituzio guztien arteko lan koordinatuarekin.
- 4) Baliabide gutxien dituzten eta bazterketa-arriskurik larrienean dauden familientzako laguntza puntualetarako funts bereziak sortzea.
- 5) Lan pedagogikoa eta herritarrak kontzientziatzeko lana egitea, familiaren ekonomiara egokitutako kontsumo arduratsua sustatzeko.

Bertaratutako gainerakoak eta Dokumentu Markoa

Jardunaldira gonbidatutako gainerako bertaratutakoen artean, honakoak aipatu behar dira: Juan Calparsoro jauna, Euskadiko fiskal nagusia; Ramón Palomino jauna, Eusko Jaurlaritzako Justizia Saileko aholkularia; M^a José Fernández de Landa andrea, Arartekoaren ordezkaria; Marcos Muro jauna, Bilboko Udal Etxebizitzak erakundearen zuzendaria; Carlos Ballugera jauna, Jabetzaren erregistratzailea; Vicente M^a del Arenal jauna, Bilboko notarioa; Marta Uriarte andrea, Stop Desahucios erakundearen ordezkaria; Luis María Cordero jauna, abokatu eta Bizkaiko Abokatuen Elkargoaren ordezkaria; eta EAJ-PNV, PSE, PP, EH-Bildu eta UPyD talde politikoen ordezkariak.

Abokatuen Elkargoak Dokumentu Markoa prestatuko du. Bertan, planteatu ziren ekarpen eta konponbide guztiak bilduko dira, ondoren Administrazioetara aurkeztu ahal izan dadin.